



2 Puzzlea

Pelok bere etxeko balkoitik ikusten duen ikuspegia bidali digu argazki batean, baina pieza batzuk falta dira.



Erantzunak: 2.-1g, 2d, 3e, 4b, 5h, 6i, 7c, 8a, 9f.
3.-Ura, haizea, sua eta lurra. 4.-D eta H. 5.-a) Islandia, b) Ipar Korea, c) Irlanda, d) Kuwait.

Denbora

3 Itzalak

Haizea bortitz dabil, eta hizki guztiak nahastu ditu. Hizkiak leku egokian jartzen badituzu, lau elementuren izenak osatuko dituzu.



Katalogoak

Urrutira begiratzeko balio ez duten arren, apaingarri gisa erabil ditzakezu. Katalogoa hauek egiten, behintzat, ederki pasako duzu.

Beharrezko materiala



- Guraizeak.
- Zinta eranskor urdina.
- Pintzela.
- Arkatz markagailu beltza.
- Pintura plastiko zuria, laranja eta urdina.
- Plastikozko orri bat.
- Bi ur botila txiki.
- Plastikozko bi soka (bata urdina, eta bestea, horia).

Nola egin



1 Bi ur botilak hartu, eta guraizeekin oinarritik moztu. Kontuz, eskularen lehen pauso hau egiteko, beharrezkoa da helduren baten laguntza eskatzea. Botilak pintura plastiko zuriarekin margotu lehenik, eta gero, laranjarekin. Botilaren ahoa, berriz, urdinez margo ezazu.

2 Plastikozko orri urdinaren gainean bi borobil marraztu arkatx markagailu beltzarekin; eredu gisa botilen oinarria hartu behar duzu. Marraztutako borobilaren inguruan zentimetro bateko tartea utzi, eta moztu. Soberan utzi dugun zentimetro horretan ebaki batzuk egin (ezpain gisako batzuk egiteko moduan).




3 Marraztutako bi borobilak moztutako botilaren oinarrian ipini; ebakiekin egindako ezpainak kanpokaldera geratu behar dute. Plastikozko orrian egin ditugun borobilak botilaren oinarria itsatsi zinta eranskor urdinarekin.

-pasa






4 Bikiak

Jon aitari sakeleko bat erostera joan da. Itxura askotakoak zeuden, baina bi berdin-berdinak topatu ditu. Zein?





5 Estatuak eta banderak

Aurelioni izugarri gustatzen zaio bidaiatzea. Bandera hauei begiratuta, jakingo al zenuke zein estatutara bidaiatu duen?



4 Bi botilak bata bestearen ondoan ipini, eta zinta eranskor urdinarekin biak elkartu erditik.



5 Moztu plastikozko soka urdina eta horia. Sokak metro bat luze neurtu behar du. Bi sokak bata bestearekin elkartu. Sokaren mutur bana kataloxen ertz banatan itsatsi zinta eranskorarekin. Orain, begiratu ingurura zure kataloxa bereziekin. Ikuspegi politak, ezta?